20 36

ONDARRETAKO KARTZELA

Eraikin desberdinek kartzelaren lanak bete dituzte; horien artean jesuiten eskola zaharra aipatu behar da: hura kartzela zibil gisa ezarri zuten Independentzia Gudako frantsesen okupazioan, ospitale eta kuartel gisa erabili ondoren. Gaur egungo Trinitate Plazan kokatuta zegoen (Alde Zaharra) aipatutako eskolatik Ondarretako maniobren zelaian eraikitako eraikinera eraman zuten (1891) eta, hortik, Martutenera (1948). 1995eko Plan Orokorrak, zegoeneko, hura lekuz aldatzea gomendatu zuen, eta horretarako Zubieta auzoa aukeratu zuten.

Ondarretako maniobren zelaia izen bereko hareatzan eta hondartzan eratu zen, Armada gaur egungo Alderdi-Eder paseoan zegoen maniobra zelaitik atera ondorengo konpentsazio moduan (hiritik oso gertu baitzegoen).

Mota zelularreko kartzela kokaleku paregabean kokatuta egon zen (askatasunez goza zezakeenarentzat), baina bazirudien presoentzako iluna eta hezea zela, olatuek, itsasgoran, iparraldeko itxiera hormaren aurka jotzen baitzuten.

1945-46ko ortoargazkiak kartzelaren kokapena eta bere planta irudikatzen ditu, nagusiki, luzetarako nabe batek eta lau solairudun bi zeharkako nabek osatuta. Nabeetako gurutzaketa batek kupula txiki bat zeukan argia emateko.



Ortoargazkia 1945-46. Amerikar hegaldia , A bilduma. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala. Ondarretako kartzelaren kokapena, gaur egun, bertan izen bereko lorategiak eta hondartzaren hondarra aurki dezakegu. Aire argazkia lortu baino lehenagoko hamarkadetan, maniobren zelai militarrak hondartzaren zati handia okupatu zuen.

Gehiago jakiteko: Ondarreta : la cárcel del salitre / Iñaki Egaña. Donostia : Udala, 2012. - 63 p.

.



Ondarretako kartzela, Igeldo mendiaren oinean, bertan, itsasargi zaharra ikus daiteke, oraindik dorre fantasiatsu bilakatu gabe.



Ortoargazkia 1945-46. Amerikar hegaldia, A bilduma. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala. UTM 30N ETRS89 // X: 580698 m // Y: 4796515 m. Bere nabea ikus daiteke: luzetarako nabe bat eta zeharkako beste bi. Eraikina desagertu zenean, ikusten diren lorategien jarraipenarengatik ordezkatu zen, eta iparraldean, hondartzarekin bat egingo du.